

BILBOKO UDAL TXISTULARI BANDAK ASTE NAGUSIARI AGUR EZIN HOBEA EMANGO DIO ALARDEAREKIN, EVARISTO TXURRUKA KAIAN

- Euskadi osotik etorritako 80 txistulari baino gehiago ariko dira abuztuaren 30ean, igandea, 13:00etan, Evaristo Txurruka kaian, Txaber Fernándezen zuzendaritzapean eta hainbat musikari eta artistarekin batera.
- Moonshine Wagon izango da aurtengo gonbidatu berezia. Gainera, Gaztedi Dantza Taldearen 75. urteurrena omenduko da, eta Oihana Iguaran bertsolariak, Bizkaiko Gaiteroak zein Birakari erraldoien konpartsa parte hartuko dute.

(Bilbao, 2026ko abuztuaren 26an).- **Bilboko Udal Txistulari Bandak** Aste Nagusiari amaiera bikaina emango dio **66. Txistulari Alardearekin**, Bilboko jai-egitarauko hitzordu esanguratsu eta jendetsuenetako batekin. Kontzertua **abuztuaren 30ean izango da, igandean, 13:00etan, Evaristo Txurruka Kaian** (saskibaloia kantxetan), aurtengo edizioako agertoki berrian. Bertan, **tradizioa, musika eta herri-kultura** berriro elkartuko dira Hiribilduko jaiei agur esateko.

Urtero bezala, Euskadiko hainbat txokotatik etorritako **80 txistulari** inguru izango dira oholtza gainean. Haiekin batera ariko dira **Metal Boskotea**, **Ignacio Arakistain** piano-jotzailea, **Iñigo Eskubi** gitarra-jotzailea, **Amairu Cajaraville** baxu-jotzailea eta **Ander Zulaika** bateria-jotzailea. Horrez gain, **San Anton Abesbatzak**, Alfredo Hurtado de Saratxoren zuzendaritzapean, ahotsa jarriko die programako hainbat obrari. Guztiak **Txaber Fernández** bilbotar zuzendariaren gidaritzapean ariko dira. Fernándezek berriro hartuko du talde handi honen zuzendaritza, Alardea berritzen asmatu duen proiektu bat sendotuz, haren izaera eta nortasuna galdu gabe.

Kontzertuko obren moldaketak Xabier Zabala, Peio Irigoien, Iñaki Urkizu, J. Astiazaran, J. L. Eguiluz eta J. Ignacio Ansorena musikagile eta moldatzaileek egin dituzte, **doinu tradizionalak eta sonoritate garaikideagoak uztartzen dituen errepertorioa** osatuz.

MOONSHINE WAGON, AURTENGO GONBIDATU BEREZIA

Aurtengo Alardeko gonbidatu nagusia Moonshine Wagon izango da. Arabako taldeak nortasun handiko estilo propioa sortu du, bluegrassa, folka, rocka eta euskal musika tradizionala uztartuz. Taldeko lau kidek Bilboko Udal Txistulari Bandarekin partekatuko

dute agertokia, euskal doinu ezagunen bertsio berriak eta taldearen beraren hainbat konposizio eskainiz, kontzertu honetarako bereziki egokituak.

Lankidetzaz horri esker, txistuak **beste musika-hizkuntza batzuekin elkarrizketan** aritzeko duen gaitasuna erakutsiko du, tradizioarekiko lotura une oro mantenduz.

GAZTEDI DANTZA TALDEAREN 75. URTEURRENARI OMENALDIA

Aurtengo Alardeak Gaztedi Dantza Taldearen 75. urteurrena ere ospatuko du. Santutxuko talde historikoa **Bizkaiko Gaiteroekin batera** igoko da oholtzara, **dantza eta musika tradizionala** eskainiz, euskal kulturaren zaintzan eta zabalkundean egin duen ekarpen aparta aitortzeko.

Bestalde, **Oihana Iguaran** bertsolariaren parte-hartzearekin, bertsolaritzak ere protagonismo berezia izango du kontzertuan. Horrela, euskal kultura herrikoia adierazpide ezberdinak batuko dituen ikuskizunari beste osagai berezi bat gehituko zaio.

lazko arrakastaren ondoren, **Birakari erraldoien konpartsa** berriz ere Alardean izango dira. Horrela, amaiera ezin hobea eskainiko diote Aste Nagusiaz gozatzen ibiliko diren adin guztietako ikus-entzuleei.

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA

Programak euskal errepertorio tradizionaleko doinu ezagunenetako batzuk eta aurtengo ediziorako bereziki prestatutako moldaketa berriak bilduko ditu. Besteak beste, 'Ohorezko Kontrapasa', 'Zazpi Kaleetatik', 'Kaixarranka', 'Txoria Txori', 'Xiberuko Dantzak', 'Euskaldunak Gara!', 'Erraldoien Balsa' eta 'Molinetxo' interpretatuko dira; horiez gain, Moonshine Wagon taldearen hainbat konposizio ere entzungo dira, kontzertu honetarako egokitutako bertsioetan.

Bilboko Udal Txistulari Bandak 2005ean Alardearen antolakuntza bere gain hartu zuenetik, kontzertu hau Aste Nagusiko ekitaldirik jendetsu eta maitatuenetako bat bihurtu da. Urte hauetan guztietan, Kepa Junkera, Los Cinco Bilbaínos, Gozategi, Korrontzi, Xabier Solano, Alex Sardui, Julen Alonso eta Uxue Kerejeta bezalako artistek parte hartu dute, txistuaren ondarea bizirik mantenduz eta, aldi berean, instrumentu hau publiko gero eta zabalagoengana hurbiltzen duten proposamen artistiko berriak txertatuz.

JALETAN MURGILDUTA

Alardearekin Aste Nagusiari amaiera bikaina eman aurretik, Bilboko Udal Txistulari Banda dagoeneko jailetako une esanguratsuenetako batzuetan izan da protagonista. Bere parte-hartzea Arriaga Antzokiko Txupinazoarekin hasi zen, eta abuztuaren 24ko kalejirarekin eta biharamuneko Santiago plazako kontzertuarekin jarraitu zuen. Gaur eguerdian, Bilboko Udal Musika Bandarekin eta Olaeta Ballets Elkartearekin batera

eskainiko duen ohiko kontzertuan parte hartuko du, Areatzako Kioskoan. Bihar beste kalejira bat egingo du, eta abuztuaren 28an, ostiralean, Udaletxean egingo den harrera ofiziala girotuko du.

SARE SOZIALAK:

- BILBOKO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO KULTURA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBAO MUSIKA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

BILBOKO TXISTULARIEN ALARDEA

2026ko Aste Nagusia – Abuztuaren 30a

Evaristo Txurruka Kaia (saskibaloi kantzak), 13:00

OHOREZKO KONTRAPASA Raimundo SARRIEGUI / Mold.: J.I. Ansorena

ZAZPI KALEETATIK Iñaki URKIZU

HABANERA Xabier LETE / Mold.: J. Astiazaran

KAIXARRANKA EZEZAGUNA / Mold.: J. L. Eguiluz

MARIÑELAREN ZAI ESKOZIAKO DOINU TRADIZIONALA - SOROTAN BELE-MOONSHINE WAGON / Mold.: P. Irigoien

TXORIA TXORI Mikel LABOA - MOONSHINE WAGON / Mold.: P. Irigoien

MUTIL KOXKOR BAT EZEZAGUNA / Mold.: J. Astiazaran

GORKA KNÖRR KANTARI Gorka KNÖRR / Mold.: X. Zabala

XIBERUKO DANTZAK EZEZAGUNA / Mold.: X. Zabala

MOONSHINE MIX MOONSHINE WAGON / Mold.: P. Irigoien

JANARI AZKARRA MOONSHINE WAGON / Mold.: P. Irigoien

EUSKALDUNAK GARA! Pepe IANZI / Mold.: X. Zabala

ERRALDOIEN BALSA Ismael YAGÜE

MOLINATXO EZEZAGUNA / Mold.: X. Zabala

Zuzendaria: Txaber FERNÁNDEZ

Gonbidatu bereziak:

MOONSHINE WAGON

GAZTEDI DANTZA TALDEA

BIZKAIKO GAITEROAK

OIHANA IGUARAN (bertsolaria)

BIRAKARI erraldoien konpartsa

Partaideak:

SAN ANTON ABESBATZA

METAL BOSKOTEA

IGNACIO ARAKISTAIN (piano-jotzailea)

IÑIGO ESKUBI (gitarra-jotzailea)

AMAIUR CAJARAVILLE (baxu-jotzailea)

ANDER ZULAIKA (bateria-jotzailea)

LA BANDA MUNICIPAL DE TXISTULARIS DE BILBAO DESPEDIRÁ ASTE NAGUSIA POR TODO LO ALTO CON EL ALARDE EN EL MUELLE EVARISTO CHURRUCA

- Más de 80 txistularis de toda Euskal Herria actuarán el domingo 30 de agosto, a las 13:00 horas, en el Muelle Evaristo Churruga, dirigidos por Txaber Fernández y acompañados por numerosos músicos y artistas.
- Moonshine Wagon será el grupo invitado de esta edición, que también rendirá homenaje al 75 aniversario de Gaztedi Dantza Taldea y contará con la participación de la bertsolari Oihana Iguaran, Bizkaiko Gaiteroak y los Gigantes de la comparsa Birakari.

(Bilbao, 26 de agosto de 2026). La **Banda Municipal de Txistularis de Bilbao** pondrá el broche final a la Aste Nagusia con la celebración del **66º Alarde de Txistularis**, una de las citas más emblemáticas y multitudinarias del programa festivo bilbaíno. El concierto tendrá lugar el **domingo 30 de agosto, a las 13:00 horas, en el Muelle Evaristo Churruga** (canchas de baloncesto), nuevo escenario de esta edición, donde **tradicción, música y cultura popular** volverán a reunirse para despedir las fiestas de la Villa.

Como cada año, alrededor de **80 txistularis** procedentes de diferentes puntos de Euskal Herria participarán en este encuentro, acompañados por un **quinteto de metales**, el pianista **Ignacio Arakistain**, el guitarrista **Iñigo Eskubi**, el bajista **Amaiur Cajaraville** y el batería **Ander Zulaika**. También se sumará al Alarde el **Coro San Antón**, dirigido por Alfredo Hurtado de Saratxo, que pondrá voz a varias de las obras del programa. Todo ello bajo la dirección del bilbaíno **Txaber Fernández**, quien vuelve a ponerse al frente de esta gran formación, consolidando un proyecto que ha sabido renovar el Alarde manteniendo intacta su esencia.

Los arreglos musicales de las diferentes obras han sido realizados por compositores y arreglistas como Xabier Zabala, Peio Irigoien, Iñaki Urkizu, J. Astiazaran, J. L. Eguiluz y J. Ignacio Ansorena, configurando un **repertorio que combina piezas tradicionales con propuestas de sonoridad más contemporánea**.

MOONSHINE WAGON, GRUPO INVITADO

El gran invitado de esta edición será Moonshine Wagon, formación alavesa que ha conseguido crear un estilo propio fusionando bluegrass, folk, rock y música tradicional

vasca. Cuatro integrantes del grupo compartirán escenario con la Banda Municipal de Txistularis para ofrecer un repertorio que incluirá tanto nuevas versiones de melodías populares como algunas de sus composiciones más conocidas, integradas especialmente para este concierto.

La colaboración permitirá **acercar el txistu a nuevos lenguajes musicales**, manteniendo siempre el vínculo con la tradición y demostrando la capacidad de este instrumento para dialogar con estilos muy diversos.

UN HOMENAJE AL 75 ANIVERSARIO DE GAZTEDE DANTZA TALDEA

El Alarde servirá también para rendir homenaje a Gaztedi Dantza Taldea, que este año celebra su 75 aniversario. La histórica agrupación de Santutxu participará en el espectáculo junto a los **Gaiteros de Bizkaia**, aportando **danza y música tradicional** a una cita que pretende reconocer su extensa trayectoria y su contribución a la conservación y difusión de la cultura vasca.

La palabra improvisada también tendrá un papel destacado gracias a la participación de la bertsolari **Oihana Iguaran**, cuya intervención enriquecerá el concierto incorporando el bertsolarismo a un espectáculo que busca reunir diferentes manifestaciones de la cultura popular vasca.

Tras la excelente acogida de la pasada edición, los **Gigantes de la comparsa Birakari** volverán a formar parte del Alarde. Su presencia ofrecerá una despedida festiva pensada para públicos de todas las edades.

TRADICIÓN Y RENOVACIÓN

El programa reunirá algunas de las melodías más representativas del repertorio tradicional junto a nuevas adaptaciones y arreglos especialmente concebidos para esta edición. Sonarán obras como 'Ohorezko Kontrapasa', 'Zazpi Kaleetatik', 'Kaixarranka', 'Txoria Txori', 'Xiberuko Dantzak', 'Euskaldunak Gara!', 'Erraldioen Balsa' o 'Molinatxo', además de varias composiciones de Moonshine Wagon adaptadas para la ocasión.

Desde que la Banda Municipal de Txistularis de Bilbao asumiera la organización del Alarde en 2005, este concierto se ha consolidado como uno de los actos más multitudinarios y queridos de la Aste Nagusia. A lo largo de estos años ha contado con la participación de artistas como Kepa Junkera, Los Cinco Bilbaínos, Gozategi, Korrontzi, Xabier Solano, Alex Sardui, Julen Alonso o Uxue Kerejeta, manteniendo vivo el legado del txistu mientras incorpora nuevas propuestas artísticas que acercan este instrumento a públicos cada vez más diversos.

ACTIVIDAD FESTIVA

Antes de poner el broche final a las fiestas con el Alarde, la Banda Municipal de Txistularis de Bilbao ya ha estado presente en algunos de los momentos más representativos de la Aste Nagusia. Su participación comenzó con el Txupinazo en el Teatro Arriaga y continuó con una kalejira el 24 de agosto y un concierto al día siguiente en la Plaza Santiago. Este mediodía participará en el tradicional concierto conjunto con la Banda Municipal de Música de Bilbao y Ballets Olaeta en el Kiosco del Arenal. Mañana celebrará una nueva kalejira y amenizará la recepción oficial en el Ayuntamiento el viernes 28.

REDES SOCIALES:

- BILBOKO UDALA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)
- BILBAO KULTURA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#) | [TIK TOK](#)
- BILBAO MUSIKA: [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [X](#) | [INSTAGRAM](#)

BILBOKO TXISTULARIEN ALARDEA

Aste Nagusia 2026 – 30 de agosto

Muelle Evaristo Churruca (canchas de baloncesto), 13:00

OHOREZKO KONTRAPASA Raimundo SARRIEGUI / Arr.: J. Ig. Ansorena

ZAZPI KALEETATIK Iñaki URKIZU

HABANERA Xabier LETE / Arr.: J. Astiazaran

KAIXARRANKA ANÓNIMO / Arr.: J. L. Eguiluz

MARIÑELAREN ZAI MELODÍA TRADICIONAL ESCOCESA - SOROTAN BELE-

MOONSHINE WAGON / Arr.: P. Irigoien

TXORIA TXORI Mikel LABOA - MOONSHINE WAGON / Arr.: P. Irigoien

MUTIL KOXKOR BAT ANÓNIMO / Arr.: J. Astiazaran

GORKA KNÖRR KANTARI Gorka KNÖRR / Arr.: X. Zabala

XIBERUKO DANTZAK ANÓNIMO / Arr.: X. Zabala

MOONSHINE MIX MOONSHINE WAGON / Arr.: P. Irigoien

JANARI AZKARRA MOONSHINE WAGON / Arr.: Peio Irigoien

EUSKALDUNAK GARA! Pepe IANZI / Arr.: X. Zabala

ERRALDOIEN BALSA Ismael YAGÜE

MOLINATXO ANÓNIMO / Arr.: X. Zabala

Director: Txaber FERNÁNDEZ

Invitados especiales:

MOONSHINE WAGON

GAZTEDI DANTZA TALDEA

GAITEROS DE BIZKAIA

OIHANA IGUARAN (bertsolari)

Gigantes de la comparsa BIRAKARI

Participantes:

CORO SAN ANTÓN

QUINTETO DE METALES

IGNACIO ARAKISTAIN (piano)

IÑIGO ESKUBI (guitarra)

AMAIUR CAJARAVILLE (bajo)

ANDER ZULAIKA (batería)